

Euskal zibilizazioa: sugearen iraultza

• JOXE AZURMENDI •

[FILOSOFIA]

Euskarazko bi liburuk eskandalotxoak sortu dute azken denboran. Ez da gutxi, batez ere biak saio liburua izanda: A. Martínez Lizarduikoaren *Euskal Zibilizazioa* eta J. Naberanen *Sugearen Iraultza*, Gaiak Argitaldarian atereak biak. Aurrenari, agertu orduko, Madrigo kazeta boteretsu batetik gogor eraso dio Mikel Azurmendik, liburua bere osoan kondentatuz eta zapuztuz. Hedabideek euskal munduan ere, hartaz bezala Naberanen liburua, interes handia agertu dute. Bi liburuen irakurketa kritikoa zorrotza eman zigun egunkari honetan, gaian —edo gaietan— adituak ez garenon argi eta plazer paregabeko, lurgi Kintana gazteak, artikulua bikain idatzi eta solido informatu batean. Naberanek laster erantzun dio orriotantxe; orobat Mtz. Lizarduikoak Mikel Azurmendiri (*Euskadi Información*-en)... Bizitasuna ekarri dute liburuko azokara. Bestetik, berriz ere nabarmen geratu da zein zaila zaigun euskaldunoi euskaldunoi buruz naturalri hitz egitea.

Liburu biok nolabait antz-antzekoak dira eta oso diferenteak aldi berean. Biek «euskaldunen unibertso primitiboa izan zitekeenaz» dihardute. Naberan Neolitotzantzen datuak (orain hamar bat mila urte gehien-gehienez), batez ere pentsaera aurreindoeuroparra ikertuz, h. d., Asiako herri artumuen inbasioek Europa menperatu baino lehenagoko *euskal* mundu-ikuskeraren naturalista eta komunalista, matriarkalista. Egungo zibilizazio zapaltzaileari alternatiba bat ikusten du han. Martínez Lizarduikoak, euskal mundu jatorrizko haixen bila orobat, Paleolitotzantzen hasten du bere ikerketa (orain hogeita hamabost mila urte gutxienez), eta arkeologia, paleoantropologia, linguistika konparatua edo paleolinguistikaz azken hamarkada hauetan azaltzen ari den hainbat informazio eta teoria berri sakabanatu bilduz, hipotesi global bat proposatzen du, behialako Euskal Herri/Akitaniaren zentraltasuna suposatuz Europan, eta arte eta zibilizazioaren hedakundea kabi honetatik iparraldean barrena Asia Txikiraino, hegoaldean Iberia osoa eta Ipar Afrikaraino. Lizarduikoaren saio honetan Cavalli-Sforzaren ikerketa genetikoek inportantziarik handiena dute (hipotesi globalaren koherentzia esan daiteke beraien gainean sostengatzen dela azken finean). Eta genetika gure artean aipatu orduko, arrazismoaren eta nazismoaren infernuko deabru guztiak sutan zirimolatzan direla ez dizut esan beharrik. Berdin Naberanek, egungo zibilizazioaren aurka Mariren mitoa edo (kontra) kultura, matriarkalista, igoletarista, anarkista kasi (edo kasi gabe), proposatzen badu, beldur handia sartzen digu, Euskal Herri antzinatar idilikoa eta zoriontsu erromantikoa haien berrargitalpen berri baten aurrean ez ote gabiltzan berriro. Eta *mitoen* halako beldur gara orobat herri ikaratu honetan, non Naberanen

mitoaren errebindikapena bera, printzipioz, eta bereziki *mito berttaren* aldarrikapena —erromantikoen maneran—, a priori nekez irudituko baitzaigu batere *razionala*, hemen denok dogmatikoki garen *zentzuzko jende* razionalari.

Beldur denak ez dira derrigor injustifikatuak. Zenbait bisonariok mesede baino kalte gehiago egiten digu, ridikuloan jartzan gaituela baino beste kalterik ez bada izaten ere askotan. Aitortzen dut, holako gaiek, batez ere errebindikazio nazional baten tonua hartzen dutenean, alarma gorria pizten didatela. Ez da hori aipatu libururik kasua.

Kezkagarriak dira nahitaez aipatu bi liburua, bai. Eta ernagarriak dira. Eta ausartak. (Lotsagabeak?). Liburuok eskaintzen digutena ez baitira betiko topiko zaharrak. Berria deus ez ulertzeko bide bat, beti dena lehengo zerbaiten *ritornello* gisa ulertzea izaten da. Eta hori gertatuko zaio, liburua irakurri ordez, bere mamuak irakurtzen dituenari. Liburuotan aurkitzen den hainbat suposizio edo arriskutzen den hipotesi, urrutiko datu askoren amalgama eta ikerketa zientifiko ezberdinen hainbat joskera, mendeen gainetiko zenbait jauzi, zenbait antzinao ideia edo sinboloren modernotasun ez dugu pentsatuko problematikoa ez denik. Baina autoreek duda izpirik ez dute uzten, oinarri zientifiko estriktoen gainean nahi dutela beren gogoeta garatu. Berak ez antropologoak, linguistak edo genetistak dira, baina hori direnen ikerketa berrietan oinarritzen dira. Egiten dutena da, horien ekarpenak eskuan dituztela, gure iragana birgogoetatu —eta, zeharka, oraina jorratu, alternatiba errotik berri baten bila.

Neuretzat problematikoena, behar bada historian etenak baino gehiago jarraitpenak ikustera hitua nagoelako, bi munduak, aurreindogermaniko eta indogermaniko oposizio termino erradikaletan bakarrik planteatzea da, are biak polo positibo/negatiboan antzera (ez ote *indoeuroparregia* jokabide horixe bera?). Bat: uste dut guri garu ematen zaiguna ez dela bi ereduaren arteko aut-aut alternatiba, nahas-mahas bi posibilitateren arteko jokoak baizik (Naberanek nonon adierazi bezala). Bi: jakin ere ez dakigu gehiegi zer izan diren zibilizazio horiek eta horien talka, edo nolá gertatu den batetik besterako bidea. Oposizioa bakarrik ez da egon. Mugak eta prozesuak ilunak dira, baina Gilgameshen poeman jada nabariak dira eboluzio markak (matriarkalismoaren barruan). Biblian

zer esanik ez. Erlijio grekoan elementu indogermanikoak eta aurretikoak bereztezinki nahasbatuak daude (R. Muth): Zeus kobazulo batean jaio da; zer da Dionisos? Hetiten Jainkosa/ama nagusia,



Iruditzen zait bere akats eta problematikotasun guztiekin, pentsamendu gazte berri bat bidea ireki nahita datorrela bultzaka

lurtarra izatetik eguzkitarra izatera pasa da. Zibele edo Ama Handi bizigin horren guztiaile handiak dira frigiarrak —eta oso gerrazaleak. Zibeleren kultura oso inportantea da Erroma primitiboa: nola sortu da kulturarik imperialis-ten hori justu etruuriar ez-indogermanoentzako? (Erromaren hastapenak etruuriarrak baitira). Ados, Çatal Hüyük'en omen dago harresirik (harrirek ere ez sobera paraje hartan!); baina etxe bakoiz-

tzaren neurriak, forma, orientazioa kontrol errigortzen erabakiak daude, eta etxe guztien sarrera («atea») teiltuan dago! (Defentsagatik, suposatzen da). Kretan giza-sakrifizioak ezagutu dira eta, dirudienez, esklabak. Imagina al liteke kultura megalitikoak, Stonehenge adibidez (itxura guztiz eguzkiari erreferentzia, ez ilargiari!) edo Maltako tenploak, gizarte oso hierarkizatu, lan-banaketa txit berezitu (beraz, klase) eta autoritate bortizik gabe? Litekeena da Çatal Hüyük-en inguruko lurralde guztia, menpekoak diruditen eskualde eta jendegunee-kin, inperio komertzial soila izatea, dominazio militarrik gabe. Baina imajinen eboluzioak erakusten duenez, prozesu xuxen-xuxena dago Çatal Hüyük-eko amalabatik Anat birjina kanaandar gudarira, Artemis ehiztarira Egeoan, Athene armatura Atenasen, etab., ama jainkosa biziginetik birjina gudari hiltzailera. Filosoñaren hastapenetako filosofoak greko joniarrak dira (Homero bezalaxe), baina aparatuz teoriko oinarriko guztia, denboraren eta ordenaren kontzeptuak (*Dike, Moira*), etab., matriarkalista da substantzian; *Physis* edo *Natura* bera (*apeiron*) Ama Handia da. Nola aldatu da dena zeharo berehalaxe?, eta kolonietan hain zuzen hein handi batean? Problema eta problema. Nahikoa lan badu zientziak oraindik.

Dena dela, bi liburuek funtsean bilatzen dutena euskal zintzinatean eredu alternatibo bat erakustea da etorkizunaren proiektu berri baterako. Eta hori aski eta sobera lortzen dute. (Etorkizuna iraganen bilatze honek, ordea, merezi du beste komentario bat). Iruditzen zait, bere akats eta problematikotasun guztiekin, pentsamendu gazte berri bat, bidea ireki nahita datorrela bultzaka. Mundu-ikuskeraren berri bat, abertzalea eta kritikoa, kulturala, abertzaletasun klasikoaren eskemetatik oso diferentea.